



Arartekoaren ebazpena, 2012ko martxoaren 21(e)koa. Horren bidez Bilboko Udalari gomendatzen zaio jabetza pribatu eta erabilera publikoko arrapala baten erabilera okerrak sortzen dituen zaratak ezabatzeko beharrezkoak diren lanak bere kargura buru ditzan.

### Aurrekariak

1. Erakunde honetan Bilboko (...) kaleko auzokide batzuen kexa idazki bat jaso genuen. Bertan, udalaren ustezko jarduera falta salatzen zuten euren etxebizitzaren azpiko arrapala patinatzaileek behar ez bezala erabiltzean sortutako zaratak saihestu eta kontrolatze aldera.
2. Kexagileen auzokideen elkarteak aplikagarriak diren hirigintza eskakizunen arabera urbanizatutako arrapala bat dute, behar bezalako lizentziak ere dituen. Eraikinek mugatzen duten barneko enparantzara sartzeko arrapala da, **jabetza pribatukoa bada ere, erabilera publikoa daukana.**
3. Arazoa da arrapala adingabeek erabiltzen dutela patinatzeko eta *skatean* ibiltzeko eta horrek Bilboko udal ordenantzak ezarritako tolerantzia mugak nabarmenki gainditzen duten zarata mailak sortzen ditu. Egoera hori udaleko teknikariek egindako neurketen bidez egiaztatu da.
4. Gauzak horrela, Bilboko Udala, hainbat auzokidek bidalitako kexen aurrean, 2004ko irailaren 1ean ebazpen bat eman zuen, Hirigintzako ordezkariordearena. Horren bidez, erreklamatzailen komunitateari eskatzen zitzaion arrapalan beharrezko lanak egin zitzaten zaratak ekidite aldera.
5. Komunitateak dagozkion errekurtsioak jarri ondoren, azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak, 216/2006. zenbakiko epaian, udalaren ebazpen hori ezestea erabaki zuen, arrapalaren erabilera arruntak ez baitu kalterik sortzen auzokideentzat eta kalte horiek, hain zuzen ere, arrapala patinaje pista gisa behar ez bezala erabiltzen denean sortzen baitira. Zentzu horretan, salaren arabera ***“ez du zertan ezinezkoa izan ordenantzaren arau-hausteak kontrolatu eta saihestea dagozkion zigortzeko espedienteak hasten badira”.***
6. Epai horretan xedatutakoa betetze aldera, Hirigintza eta Ingurumen Saileko alkateorde ordezkariak, 2007ko apirilaren 18ko ebazpen bidez, arrapalaren jabeak diren komunitateetako bizilagunei jakinarazi zitzaizen zegokien zigortzeko espedienteak hasiko zirela sinatu zuen, ez bazuten betetzen arrapala patinatzeko pista moduan erabiltzeko debekua.





7. Kexagileak Bilboko Udalaren aurrean hainbat salaketa egin ditu eta behin baino gehiagotan deitu izan dio udaltzaingoari bertara joan dadin jendeak arrapala oker erabiltzen duenean. Baina, hala ere, udaltzainak ez dira bertaratzen, edo askoz geroago joaten dira bertara, inguruan inor ez dagoenean eta, ondorioz, arazoa ez da konpontzen. Horrez gain, esan du udaltzaingoak jendea arrapatatik jaisten ikusi duenetan, ez duela inoren daturik hartu pertsona horiek identifikatzeko. Horrek, beraz, zigortzeko espedienteak hastea ekiditen du. Horregatik guztiagatik, erreklamatzailaren ustez, Bilboko Udalak ez du behar bezala esku hartzen, urteetan jasan den arazo hau konpontzeko.
8. Behin kexa jasota, erakundeak Bilboko Udalari ingurumenen egoera arrunta berrezartzeko eta arrapalaren erabilera okerra baztertzeko hartutako neurriei buruzko informazioa eskatu zion, azken hori kexak hizpide dituen kalteen jatorria baita, eta eskaera 2010eko urtarrilaren 18ko Alkatetza txosten bidez bideratu zen.
9. Horrela bada eta auzokideen gatazkaren ezaugarriak kontuan hartuta, Bilboko Udalaren **bizikidetzak behatokiak** esku hartzea erabaki zen, bi aldeak auzokideen konponbide baten bila, polizia zaintza eta diziplina neurriak baino harago, baina arduradunarekin harremanetan jarrita gatazka desblokeatu ezin izan dela jakin izan dugu.

Adierazitako gertakariak ikusita eta espedienteen dauden txostenak zehaztasunez aztertu ondoren, honako gogoeta hauek helarazi nahi dizkizut.

### Gogoetak

1. Bilboko Udaleko Ingurumeneko Negoziatu Juridikoko Buruaren txostenaren arabera, udaltzaingoak ahalmena dauka kasu zehatz bakoitzean arau-hausleei agintzeko patinatzeari utz diezaioten eta aldi berean dagokion salaketa eta txostena bideratzeko, gertakariak eta erantzuleak zehaztuz (adingabeak eta euren zaintzapean egoteagatik euren erantzukizuna dutenak) eta, hala dagokionean, Ingurumeneko Azpialorrera bidaltzeko, ingurumen alorrean espedienteak hasteko eskumena duen unitatea.
2. Erakunde honek badaki **zailtasun handiak dakartzala poliziaren jardueran**, inguruan etengabe egon beharko bailirateke, jarduera burutzen ohi den orduetan behintzat, auzokideen salaketek ez baitute berehalakotasunerako aukera eskaintzen eta agenteak heltzen direnerako adingabeek ingurutik alde egin dute.
3. Ondorioz, arazoaren **behin betiko konponbidea**, erakunde honen ustez, eta Bilboko Udalaren ingurumen ikuskaritzak jada azaltzen zuen moduan, **arrapala isolatzeko hainbat neurri zuzentzaile burutzean datza**. Horien



kostea, epaiari jarraiki, ezin zaio jabeekideen komunitateari eskatu, ezta burutzapen subsidiarioan ere. Izan ere, gaiaren inguruan **EAEANk** emandako epaiak berak dioen moduan *“(...) el Ayuntamiento abdica de su competencia en orden a exigir el cumplimiento de las ordenanzas en materia de orden público, desnaturaliza los deberes urbanísticos que incumben a los propietarios de elementos de urbanización de uso público y les hace paganos de su ineficacia a la hora de controlar y evitar las infracciones de la ordenanza (...)”*

4. Zentzu horretan, hirigintza plangintzak erabilera publikoaren zorra eremu pribatu batean ezartzea legezkatzen duenean, Kode Zibilaren 543. artikulua gogora ekarri beharko genuke, alderdien (auzokideen elkarte eta udala) arteko eskubide eta betebeharrak arautzen dituena. Horren arabera, zorraren titularrari dagokio gauza mantentzea eta konpontzea xedatutako erabilera publikoaren jarraipena baimentzeko.

Azken finean, **udalari dagokio** erabilera publikoaren eremua **zaintzea** helburu publikoa betetzeko, ingurumeneko legezkatasuna barne dagoela kontuan hartuta.

Ildo horretan, Auzitegi Gorenak, 2001eko maiatzaren 21eko epaian, adierazi du jabeek egoki irizten dituzten erreklamazio guztiak egiteko eskubidea daukatela, jabetza pribatuko plaza baten erabilera publikoa oinarri hartuta. Honela dio: *“La razonable compensación que el uso público de la propiedad particular ha de comportar en el pago de los gastos de conservación tiene su adecuado tratamiento en las vías negociables y de disposición de derechos”*. Auzitegi Gorenaren pronuntziamendu horri jarraiki, udal esku-hartzearen arrazoi juridikoa bidezko konpentsazioa da jabeek gain hartzen duten kargaren aurrean.

Legeak <sup>1</sup> ere printzipiook bildu ditu. Lege horrek oinarritzko arauaren izaera dauka eta herri-administrazioen araubide juridikoa arautzen du, administraziook euren jardueretan fede onaren eta konfiantza legitimoaren printzipioak errespetatu beharko dituztela xedatzerakoan.

5. Bestalde, kexa-espedita honen helburua den arazoari dagokionez (zarata kutsaduragatiko arazoak), eta arrapalaren erabilera okerrarengatik zuzenean eragindako auzokideen eskubideen ikuspuntutik, gogorarazi beharko genuke zarataren alorrean eskumena duten administrazioen jardura ezak, besteak beste, administrazio edota zigor izaerako erantzukizunak eragin ditzakeela.

Justizia Auzitegiek behin eta berriro adierazi dute legezko mugak gaintzen dituzten soinu kalteek etxebizitzaren bortxaezintasunerako oinarritzko eskubidearen gainean kaltetsuki eragiten dutela (konstituzioaren 18.1. art.),

---

<sup>1</sup> Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 3,1 artikulua.



baita osasuna babesteko, ingurumen egokia izateko eta etxebizitza duina izateko konstituzioko eskubideen ganean ere (43., 45. eta 47. artikulua, hurrenez hurren), beraz, ezinbestekoa da agintari publikoek ezarri beharreko babes sendoa (2011eko maiatzaren 24ko eta 2004ko otsailaren 23ko Auzitegi Konstituzionaleko Epaia eta 2001eko otsailaren 23ko, 2003ko apirilaren 26ko, 2006ko urriaren 19ko, 2007ko azaroaren 12ko eta 2008ko urriaren 13ko Auzitegi Nagusiko Epaia).

**Auzitegi Konstituzionalak, maiatzaren 24ko 119/2001 zenbakiko Epaian,** zera adierazi zuen:

*“En efecto, el ruido puede llegar a representar un factor psicopatológico destacado en el seno de nuestra sociedad y una fuente permanente de perturbación de la calidad de vida de los ciudadanos. Así lo acreditan, en particular, las directrices marcadas por la Organización Mundial de la Salud sobre el ruido ambiental, cuyo valor como referencia científica no es preciso resaltar. En ellas se ponen de manifiesto las **consecuencias que la exposición prolongada a un nivel elevado de ruidos tienen sobre la salud de las personas** (v. gr., deficiencias auditivas, apariciones de dificultades de comprensión oral, perturbación del sueño, neurosis, hipertensión e isquemia), así como sobre su conducta social (en particular, reducción de los comportamientos solidarios e incremento de las tendencias agresivas).”*

6. Kexagileek hamar urte baino gehiago daramatzate arrapalaren erabilera okerretik sortutako zarata pairatzen, espedientearen sartutako agente guztiek jasanezintzat sailkatzen zituzten igorpen akustikoko mailekin.
7. Era berean, ez dago inolako zalantzarik **Udalak ingurumen legezkotasuna kontrolatu eta ikuskatzeko bere eskumen ukaezinak betetzeko duen beharrari dagokionez**, betetze eraginkorra zaila edo ez hain zaila izan arren.
8. Polizia kontrolaren neurriak eraginik gabekoak eta aplikatzeko zailak direla ikusi da.
9. Espedientearen izapidean, berriz, **arrapalaren ganean jarduteko proposamenak** kontuan izan dira, okerreko erabilerak sortzen duen zarata eraginkortasunez ezabatzeko, baina badirudi udalak horien kostea ordaintzea ukatu duela.

Adierazitako guztia oinarritzat hartuta eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak – erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, honako gomendioa egin da:



**45/2012 GOMENDIOA, 2012ko martxoaren 21(e)koa, Bilboko Udalari egina.**

- Eskumena duen udal organoaren ebazpen bidez, kexak hizpide duen arrapalaren okerreko erabilerak inguruko etxebizitzetan eragiten duen zaratak kentzeko beharrezkoak diren lanen burutzapena adostu dadin, udalaren beraren kargura.